



## LOMCEk gazteen arteko desberdintasunak sortuko dituela ohartarazi du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak

Hezkuntza Lege berria ez aplikatzeko eskatu du gazte erakundeak  
“Murrizketak geldiaraztea” eskatu du EGK-k

*Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 19an.* LOMCE Hezkuntza Lege berria Espainiako Senatuan bozkatzeko bezperan, arau honek “gazteen arteko desberdintasunak” sortuko dituela ohartarazi du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak komunikatu baten bidez. Gazte elkarteen koordinakundearen hitzetan, “berezko talentu eta gaitasunak ditugula argudiatuz, gazte-gaztetatik abilak garenon eta ez garenon artean bereiztu nahi gaitu lege honek, oso goiz gure hezkuntza ibilbideak banaketa horren arabera antolatuz eta, etorkizunera begira, elitea izango direnen eta enplegu prekarioetara kondenatuak izango direnen arteko zatiketa eginez”.

Gazte erakundeak LOMCEren kontrako kritika andana adostu du. Batetik, legea “inolako adostasunik gabe eta ikasleen eta hezkuntza komunitatearen ahotsa entzun gabe” abiatu dela salatu du EGK-k. Halaber, “hizkuntzaren normalizazioan atzerapauso kezagarria suposatuko duela” adierazi du, “euskara hirugarren maila batera baztertzen duelako”. Gainera, arauak “eskola sexista eta matxista” babesten duela kiritikatu du, “ikasleak sexuen arabera banatzen dituzten eskolei diru-laguntzak ematea baimentzen duelako”. Bestalde, “testuak ikasleen greba eskubidea ezabatzen duela gaitzetsi du, eta eskola kontseiluek kontsultarako baino ez dutela balio izango, erabakitze-organoak izan beharrean”.

Testuinguru honetan, “LOMCE ez aplikatzeko, hezkuntza arloko murrizketak geldiarazteko eta gazteen ahotsa aintzat hartzeko” eskatu dio Eusko Jaurlaritzari Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Halaber, gazteei ere dei egin die EGK-k, “beste hezkuntza eredu baten alde lan egiteko: eredu barneratzailea, euskaraz bizitzeko eskubidea babestuko duena eta ikasleek hezkuntza proiektuan demokratikoki parte hartzeko duten eskubidea bermatuko duena”.

**info+**

945 22 06 01

665 71 16 40

Itsaso Estarrona Elizondo  
Komunikazioa

[www.egk.org](http://www.egk.org)